

SAN SEBASTIAN EGUNA

Gurasoak, agur:

Urtarrilaren 19an, asteartea, SAN SEBASTIAN EGUNA ospatuko dugu ikastolan, baina aurtengoa ospakizun desberdina izango da osasun-egoera dela eta. Ikastola barruan egingo dugu ospakizuna, eta segurtasun-neurri guztiak errespetatuko ditugu. Gainera, aurten familiak ezingo zarete danborrada ikustera etorri, baina Atariaren bitartez emango dizuegu ospakizunaren berri.

HAUR HEZKUNTZA

Soroan egingo dugu ospakizuna goizean zehar, eta haurrek sukaldariz jantzita etorri beharko dute etxetik (mantala, zapia eta alkandora edo jertsea zuriak eta galtza urdinak). Datorren astelehenean, urtarrilak 11, haur bakoitzak bere danborra eta bi makil (sokaz lotuta eta izena jarrita) ekarri beharko ditu ikastolara entseguetarako.

LEHEN HEZKUNTZA

Arratsaldean joko dugu danborra, eta ekarri beharreko jantzia ondorengoa da: mantala, zapia eta alkandora (edo jertsea) zuriak eta galtza urdinak. Entseguetarako LH 1 eta 2ko ikasleek datorren astelehenean, urtarrilak 11, beren danborrak eta bi makil (izena jarrita) ekarri beharko dituzte ikastolara. LH 3tik 6ra bitarteko ikasleek, aldiz, urtarrilaren 18an ekarri beharko dituzte.

BIGARREN HEZKUNTZA

Aurten DBH 2ko ikasleei zabalduko diegu arratsaldean LH-ko talde batekin soldadu-konpainia osatu eta danborra jotzeko aukera. Tutoreek jasoko dute parte-hartzaileen zerrenda, eta haiei emango zaie ordutegiaren berri. Soldadu-kasaka eta danborrak ikastolan emango zaizkie, eta etxetik praka zuriak eta oinetako beltzak ekarri beharko dituzte.

Egun honetan, ikasleen ordutegiak, sarrera-irteerak eta eskolaz kanpoko zerbitzuak ohiko moduan mantenduko dira.

Desberdina izango den arren, danbor-hotsa izango dugu gurean aurten ere.

Ondo izan,

ZUZENDARITZA

Estimadas familias:

El martes 19 de enero celebraremos el día de San Sebastián en la ikastola, pero este año será una celebración diferente debido a la situación sanitaria. Celebraremos la tamborrada dentro de la ikastola y respetaremos todas las medidas de seguridad. Además, este año las familias no podréis venir a ver la tamborrada, pero os informaremos de la celebración a través del Ataria.

HAUR HEZKUNTZA

La celebración se desarrollará en Soroa a lo largo de la mañana, y los niños deberán venir vestidos de cocineros (delantal, pañuelo y camisa o jersey blanco y pantalón azul). El próximo lunes, 11 de enero, cada niño deberá traer a la ikastola su tambor y dos palos atados con cuerdas y con el nombre puesto.

LEHEN HEZKUNTZA

Tocaremos el tambor por la tarde y el traje a traer es el siguiente: delantal, pañuelo y camisa (o jersey) blancos y pantalón azul. Los alumnos de LH 1 y 2 deberán traer a la ikastola el próximo lunes, 11 de enero, sus tambores y dos palos con su nombre para poder llevar a cabo los ensayos. Los alumnos de 3º a 6º de LH, en cambio, deberán traerlos el 18 de enero.

BIGARREN HEZKUNTZA

Este año ofreceremos a los alumnos de 2º de DBH la posibilidad de formar la compañía de soldados y tocar el tambor con un grupo de LH a la tarde. Los tutores recibirán la lista de participantes, a los que se les informará del horario. La casaca de soldado y los tambores se les entregarán en la ikastola, y deberán traer de casa pantalones blancos y calzado negro.

Durante este día, los horarios de los alumnos, las entradas y salidas y los servicios extraescolares se mantendrán de forma habitual.

Aunque será diferente, los tambores volverán a sonar un año más.

Un saludo,